

## Laguntza programa – Eskualdaketak eta EJD

### **Sistemaren gutxieneko ezaugarriak**

- 1.- Ordenagailu bat, 18 GHz-ko Pentium 4 prozesadorearekin bateragarria dena.
- 2.- Gutxienez 1 Gbeko Ram memoria. Hobe 2 Gb baditu.
- 3.- 100 Mb erabili gabe disko finkoan.
- 4.- SVGA monitorea (gomendatua 1280x1024).
- 5.- Sistema eragilea: Windows Vista edo berriagoa.
- 6.- Softwarea: Microsoft Internet Explorer 6.0 edo berriagoa.
- 7.- Softwarea: Microsoft.NET Framework 2.0 bertsioa edo hobea.
- 8.- Acrobat Reader 6.0 edo hobea.
- 9.- Inprimagailua: 300 p.p.p., orratzik gabea.
- 10.- Ezinbestekoa Interneti lotuta egotea programa ibil dadin.

### **Eskualdaketak eta EJD instalatzea**

- Jaitsi aplikazioa Araba.eus web gunetik (<http://www.araba.eus>)
- Gorde fitxategia zure disko finkoan.
- Zure ekipoaren barruan, joan fitxategia gorde den lekura eta egikaritu fitxategia. • Programa instalatu baino lehen, bi pakete deskargatu beharko dituzu doan Microsoften web gunetik eta instalatu. Pakete horiek edukitzea ezinbestekoa da programaren funtzionamendurako, eta instalatuta izan behar dituzu programa instalatu baino lehen:
  - 1.- Microsoft.NET Framework 3.5 bertsioa (23 Mb). Aldez aurretik jaistea duzu edo, bestela, itxarotea duzu programaren instalatzaileak zure ordeztu egin dezan. Microsoften web gunean duzu instalatzaile hori.
  - 2.- Microsoft Office-n kontrolagailua:
    - A.- Aplikazioa egikaritu nahi duzun ekipoak **Microsoft Office 2007 edo zaharragoren bat badu** edo halakorik ez badu, **Microsoft Office-ko 2007ko kontrolagailua** instalatu beharko da. Horretarako, jaitsi eta egikaritu "AccessDatabaseEngine.exe" artxiboa. Artxibo hori web gune honetan dago:<http://www.microsoft.com/downloads/es-es/details.aspx?displaylang=es&FamilyID=7554f536-8c28-4598-9b72-ef94e038c891>
    - B.- Ekipoak **32 bit dituen Microsoft Office 2010** instalatuta badu, beharrezkoa da instalatzea **32 bit-erako Microsoft Office 2010-erako datu baserako motor kontrolagailua**. Horretarako, jaitsi eta egikaritu "AccessDatabaseEngine.exe" artxiboa. Artxibo hori web gune honetan dago:<http://www.microsoft.com/downloads/es-es/details.aspx?familyid=c06b8369-60dd-4b64-a44b-84b371ede16d>
    - C.- Ekipoak **64 bit dituen Microsoft Office 2010** instalatuta badu, beharrezkoa da instalatzea **64 bit-erako Microsoft Office 2010-erako datu baserako motor kontrolagailua**. Horretarako, jaitsi eta egikaritu "AccessDatabaseEngine\_X64.exe" artxiboa. Artxibo hori web gune honetan dago:<http://www.microsoft.com/downloads/es-es/details.aspx?familyid=c06b8369-60dd-4b64-a44b-84b371ede16d>
- Gainera, ordainketa pasabidearen bidez ordaindu behar badituzu aitortpenak edo zuzenean bidali nahi badituzu AFaren laguntza programaren bidez, beharrezko ziurtagiriak izan beharko dituzu instalatuta zure ordenagailuan. Araba.eus web gunetik (<http://www.araba.eus>) jaitsi ditzakezu ziurtagiri horiek.
- Ondoren Eskualdaketak eta EJD programa hasiko da instalatzen. Klikatu "Siguiete" prozesuarekin jarraitzeko (1. Irudia).




(1. irudia)

- Idatzi zer direktorio edo karpetatan instalatu nahi duzun Eskualdaketak eta EJD programa. C:\DFA\Transmisiones\ da direktorio lehenetsia. Beste nonbait instalatu nahi izanez gero, klikatu "Cambiar" eta hautatu beste direktorio bat edo idatzi karpetaren izena testu eremuan. Karpeta hori ez bada existitzen, berez sortuko da. Nahi baduzu, idatzi helmugako direktorioaren izena bide izen edo path osoa emanez. (2. irudia).



(2. irudia)

- Aurreko urrats horiek egin ondoren, klikatu "Siguiente". Instalazioak aurrera egin ahala, leiho honetako progresio barrak aurrera egingo du instalazio prozesua burutu arte (3. irudia)



(3. irudia)

- Instalazioa gauzatzeko, klikatu “Terminar” (4. irudia).



(4. irudia)

- Instalazio prozesua amaitzen denean, Eskualdaketak eta EJD programaren lasterbide bi gehituko dira, bata idazmahaian, eta, bestea, Windowseko Hasi menuko Eskualdaketak eta EJD programa multzoan. Haiek aplikazioa abiarazteko balioko dute.
- Litekeena da Windows Vista edo hobea duten erabiltzaileek baietsi behar izatea instalazioa nahi eta baimentzen den prozesua dela.


### ***Eskualdaketak eta EJD programak bete beharrekoak***

Laguntza programatik AFARA aitopenak zuzenean bidaltzea pentsatzen baduzu edo Eusko Jaurlaritzaren “Ordainketa pasabidea” bidez ordaintzeko aukera erabili nahi baduzu, IZENPE ziurtagiriak behar dituzu instalatuta izan zure ekipoa.

Behara kargatze horretarako, sartu [www.alava.net](http://www.alava.net) web gunera eta hautatu "Ziurtagirien behera kargatzea (IZENPE)". Ondoren, jarraitu puntu honetan deskribatzen diren jarraibideak.


Pantaila bereizmenak 1024x768 izan beharko du, eta koloreen konfigurazioa "Windows Estandarra"; horretarako, hauxe egin behar duzu:

- Joan Hasi menura eta hautatu Kontrol-panela aukera. (5. irudia)




(5. irudia)

- Kontrol-panelaren barruan, hautatu Pantaila aukera. (6. irudia)



(6. irudia)


- Joan Doitu pantaila-bereizmena aukerara, begiratu ea pantaila eremu gomendatua 1280x1024 den, eta hala ez bada, hautatu balio hori. Klikatu “Ados”. (7. irudia)



(7. irudia)


Eskualdeko ezarpenetan, 'Koma' (,) hautatu beharko duzu zenbaki hamartarren ikur moduan, eta, zenbakietan milakakoak bereizteko, 'puntu' (.) erabili. Horretarako, egin hau:

- Joan Hasi menura eta hautatu Kontrol-panela aukera. (8. irudia).




(8. irudia)

- Kontrol panelaren barruan, hautatu Eskualdea eta hizkuntza. (9. irudia)



(9. irudia)

- Klikatu Ezarpen osagarriak botoia, eta Zenbakiak izeneko erlaitzean, adierazi hamarrekoaren simbolo moduan 'koma' (,) eta, zenbakietan milakoak bereizteko, 'puntua' (.). (10. irudia).




(10. irudia)

- Egiatzatu “Moneta” erlaitzean “Euro” (€) dagoela hautatuta.

## **Eskualdaketak eta EJD konfiguratzea**

Eskualdaketak eta EJD lehenengoz abiaraztean, programaren hasierako konfigurazioaren pantaila aterako da.


- Norbanakoa: Norbanakoa bazara, honako hau hautatu “Tipo de instalación” erlaitzean: “Usuarios Particulares” (11. irudia)



The screenshot shows a configuration window titled "Configuración Programa de Ayuda". It has three sections: "Tipo de Instalación" with radio buttons for "Usuarios profesionales autorizados" (unselected) and "Usuarios Particulares" (selected); "Base de Datos" with a text field containing the path "c:\DFA\Transmisiones\Aplicacion\BD\TransmisionesP," and a search icon; and "Idioma" with radio buttons for "Euskera" (unselected) and "Castellano" (selected).

(11. irudia)


- Erakunde laguntzailea: Notariotza, aholkularitza edo gestoria bazara, hautatu 'Usuarios profesionales autorizados' Tipo de instalación' eremuan (12. irudia).



The screenshot shows the same configuration window as above, but with the "Usuarios profesionales autorizados" radio button selected in the "Tipo de Instalación" section.

(12. irudia)

- Batean zein bestean, ondoren, aitoren aurkezlearen datuak bete beharko dituzu. Erabiltzaile profesionala izanez gero, “Código Origen” ere bete beharko duzu. Kontuan izan behar da fitxategiak bidaltzeko erabiliko den Aldundi Digitalaren erabiltzailea eta aurkezlea bera izango dela (13. irudia).



The screenshot shows a form titled "Datos del Presentador". It contains several input fields: "N.I.F.", "Apellido 1/ Razón Social", "Apellido 2", "Nombre", "Provincia" (with "ARABA/ALAVA" selected), "Municipio", "Entidad o Pueblo", "Dirección (Calle o Plaza)", "Teléfono", "Código Origen", "Email", and "Datos de contacto" (with "Nombre" and "Teléfono" sub-fields). There are also small icons for editing and deleting on the right side.

(13. irudia)


Datu horiek grabatutakoan, badago erabiltzea Eskualdaketak eta EJD laguntza programa.

**GARRANTZITSUA:** Aplikazioa zenbait ordenagailutan instalatzen baduzu eta aurkezpen bidalketak batetik baino gehiagotik egiten badituzu, datu basea sarean jarri beharko duzu eta ordenagailu guztiak datu base hori erabiltzera behartu beharko dituzu, eta ez utzi jendeak bere ordenagailuan instalatzen duen datu basea erabil dezala. Horretarako:

- Instalatu Eskualdaketak eta EJD programa nahi duzun ordenagailuetan.
- Kopiatu Eskualdaketak eta EJD programaren datu basea (C:\DFA\Transmisiones\Aplicacion\BD\BDTransmisiones.accdb) sareko nahi duzun tokian.
- Erabili "Procesos Especiales – Conectarse a BD" instalazio bakoitza nahi den datu basera lotzeko.

### ***Eskualdaketak eta EJD eguneratzea***

Litekeena da, Eskualdaketak eta EJD laguntza programa abiaraztean, mezu hau agertzea:



(14. irudia)

Horrek esan nahi du eguneratzeak egin direla laguntza programan eta, ondorioz, berriro eguneratu beharko duzu ekipo guztietan. Modu automatikoan eguneratzen da, eta zuk grabaturiko datuak eta ezarritako konfigurazioak errespetatuko dira.

### **OSO GARRANTZITSUA!!!:**

Egin datu baseen segurtasun kopiak laguntza programa eguneratu aurretik, izan litezkeen funtzionamendu hutsak saihestuko dituzu.

### ***Jardunbide egokiak***

- Datu basearen segurtasun kopiak sarri egitea eta toki segururen batean gordetzea.
- Datu basea hainbat erabiltzailek partekatuz gero, egin kontuz segurtasun kopiak eta berreskuratzeak.